

Gezurraren hanka motzak

Koldo Sagasti

Iragan urriaren 25ean gertaera beldurgarri batek Gasteizko iritzi publikoa asaldatu zuen. Andre batek salatu zuen etxerako bidean zihoala lau ezezagunek eraso egin eta bortizki jipoitu zutela. Salatariak, gainera, erasotzaileak magrebtarrak eta adin txikikoak zirela nabarmendu zuen, ez bakarrik poliziaren aurrean, baita Espainiako El Toro telebista katean ere. Hiriko hedabideek ustezko erasoaren kontakizuna ontzat eman eta, informazioa kontrastatu gabe, lau haizetara zabaldu eta adin txikiko arabiarren kolektiboa hiritarren suminaren jomugan jarri zuten. Ordu gutxiren buruan, protestaldia ere deitu zuten oldarraldia gertatu omen zeneko Batan auzoko bizilagunek; elkarretaratzearen buruan Gobernuko or-

dezkaria, PPko delegaritz bat eta gotzaina bera zeudelarik.

Gazte etorkinen bizimoduaren inguruko gutxieneko ezagutza daukan edonork berehala susmatuko zukeen Gasteizko elitezko auzune horretan lau nerabe magrebtar ordu txikitan solte zebiltzalako istorioak ez zuela sinesgarritasun handirik. Baina, errealitatea ezagutu gabe ere, kazetari profesional bati eskatu beharko litzaioke lekuko bakarraren testigantza egiaztatzea. Izan ere, Google bidezko hamar segundoko ikerketa egiteko ardura hartu izan balute, berehala aurkituko zuketuen ustezko erasoaren ustezko biktima 2015eko foru hauteskundeetan VOX alderdi ultraeskuindarraren hautagaia izan zela, hain zuzen ere, bere diskurtso politikoa

adin txikiko etorkinak kriminalizatzean oinarritu duen alderdikoa.

Hamar eguneko ikerketaren ostean Erztaintzak jakinarazi zuen ez zuela aurkitu erasotzaileen zantzurik eta jipoia ustez gertatu zeneko lekuaren inguruko bideozaintza kameretan, eta ez dira gutxi, salatariaren irudiak baino ez zirela erregistratu, bakarrik guztietan.

Kolektibo zaurgarri oso baten gainean susmoaren itzala zabaldu duten kazetari eta ordezkari publikoek profesionaltasun faltagatik egingo zuten agian; edo akaso, eta hori larriagoa litzateke, etnia jakin bateko kideek delinkuentziarako berezko joera naturala dutela iradoki nahiko zuten. Nolanahi ere, azkenean, gezurrak bezala xenofobiak ere hanka motzak ditu. •

Kaltea prebenitzea

Xabier Izaga
Gonzalez

Ohitura zaharra da filtrazioa etxe horietan. Ohiturazko zuzenbidea, nonbait. Ohikoa baita Espainiako auzitegi batek bere ebazpen bat argitaratu baino lehen hedabideren batek argitaratzea. Duela hamar bat egun jakin zen Auzitegi Konstituzionalak erabaki zuela «Bateragune auziko» defentsak aurkeztu zuen babes helegitea aztertu artean auzipetuak ez dituztela epaituko. Beraz, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak epaiketa baliogabetu ostean, Auzitegi Gorenak Arnaldo Otegi, Arkaitz Rodriguez, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Rafa Diez berriz epaitzea

eten du behin-behinean Konstituzionalak. Ostegunean jakinarazi zuen gauza jakina zena, eta horretarako argudioak.

Epaiketa babes helegitearen gainean ebatzi baino lehen egiten bada, auzipetuak babesgabe geratuko lirateke. Hori da argudio nagusia. Ez dago legelaria izan beharrik hori ulertzeko. Fiskalak, ordea, babes helegitea baztertzeko eskatu zuen eta Konstituzionaleko hamar epaileak eskaera horren kontra agertu dira. Ez dut esan nahi fiskalak ez duela ulertzen Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoaren 56.2 artikulua, baizik eta haren aplikazioa saihesten ahalegindu dela.

Fiskalak zioenez, ez dago nahikoa argudiatuta epaiketak auzipetuei eragingo liekeen kaltea konponezina dela, eta kalte hori izatekotan «zalantzazkoa» izango litzateke, ez baita jakina auzipetuei zigorrak ezarriko lieketen ala ez. «Hain zuzen ere», horixe esan du gutxi gorabehera Konstituzionalak. Gainera, kausa beragatik epaiketa inpartzial batean zigortutako auzipetuen kasuan... diot nik.

Kaltea prebenitzeko aholku bat, egunotarako baliagarria: «Atera guardasola, eurria egiten badu ere». Fiskal horren ustez, ordea, honela beharko luke: «Ez atera, egiten ez badu ere». •